
Irakasle Funtzionarioen Lanpostu Esleipen Telematikoa (FLET)

Erabiltzailearen gidaliburua Eskaeren modulua

1.4 bertsioa

Edukien aurkibidea

1 BETEKIZUN TEKNOLOGIKOAK	4
2 KONTZEPTUAK	4
2.1 Deialdia	4
2.1.1 Deialdi baten egoerak	4
2.2 Parte-hartze mota	4
2.2.1 Nahitaezko parte-hartzea	4
2.2.2 Prestakuntzarako zerbitzu bereziak	5
2.2.3 Nahitaezko parte-hartzea beste zerrenda batetik	5
2.2.4 Borondatezko parte-hartzea	5
2.3 Zerrenda	5
3 INTERFAZEA	6
3.1 Goiburua	6
3.2 Nabigazio bidea	6
3.3 Izenburua eta nabigazioa aurreko orrira	6
3.4 Oharrak	6
3.5 Laguntzako informazioa	7
3.6 Edukia	7
3.7 Nabigazioa (atzera)	7
3.8 Orri-oina	7
4 ORRIAK	7
4.1 Abiatuak diren deialdiak	7
4.2 Deialdi ebatziak	8
4.3 Deialdia	8
4.3.1 Informazioa	8
4.3.2 Irakasleak erlaitza	9
4.3.3 Beharrak erlaitza	10
4.3.4 Ebazpena erlaitza	11
4.4 Nire eskaerak	12
4.4.1 Kotsultatu aurkeztutako eskaera bat	13
4.4.2 Deskargatu eskaeraren PDFa	14
4.4.3 Deuseztatu egindako eskaera bat	14
4.5 Eskaera	15
4.5.1 Datu pertsonalak	15
4.5.2 Parte-hartze mota	15
4.5.3 Eskaeran barne hartutako beharrak	15
5 DEIALDI BATEAN PARTE HARTZEA	16
5.1 Autentifikazioa	16
5.1.1 Cl@ve	16
5.1.2 Erabiltzaile ziurtagiria	16
5.1.3 EDUCaKo erabiltzailea	17
5.2 Eskaera berria	17
5.2.1 Eskaerari beharrak gehitzea	18
5.2.2 Lanaldi partzial bateragarriak	21

5.2.3	Eskaerako beharrak berrordenatzea	22
5.2.4	Behar bat posizioz mugitzea	23
5.2.5	Behar bat eskaeratik kentzea	23
5.2.6	Gorde zirriborroa	24
5.2.7	Eskaera kopia	24
5.2.8	Hautatu beharreko beharren kopurua	25
5.2.9	Eskaera aurkeztea	25
5.2.10	Jakinarazpenak	26

1 BETEKIZUN TEKNOLOGIKOAK

1024x768ko gutxieneko bereizmenerako optimizaturiko aplikazioa

Zein nabigatzaileekin dabilen: Internet Explorer (9 bertsioa edo goragokoa), Mozilla Firefox eta Chrome.

Nahitaezkoa da izatea Cl@ve, Estatuko Administrazio Orokorrak kudeatua, ziurtagiri elektronikoa edo EDUCAk erabiltzailea.

2 KONTZEPTUAK

2.1 Deialdia

Deialdi bakoitzean sartzen dira deitutako irakasle funtzionarioek eskura ditzaketen beharrak.

Deialdiak parte-hartze aldi bat definitzen du, zeinean izangaiek beren eskaerak egin baititzakete. Eskaera bakoitzean izangaiek beharrak hautatzen ditu, bere lehentasunen arabera ordenatzen ditu eta, azkenik, eskaera aurkezten du. Behin parte hartzeko epea itxita, deialdia ebatzi egiten da eta esleipenak egiten dira.

2.1.1 Deialdi baten egoerak

- Parte-hartzea hasi gabe dago: deialdia argitaratu da, baina oraindik ez da hasi parte hartzeko epea. Egoera honetan irakasleak eta deialdiko beharrak kontsulta daitezke, baina ez eskaera igorri.
- Parte-hartzea irekita dago: deialdia argitaratu da eta hasia da parte hartzeko epea. Deitutako irakasleek eskaerak egin ditzakete.
- Parte-hartzea itxita dago – prozesua ebatzen fasean dago: parte-hartze aldia bukatu da. Ezin da jada eskaera berririk egin. Hezkuntza Departamentua deialdia ebatzen ari da.
- Ebatzia (behin-behinekoa): deialdia ebatzi eta argitaratu da behin-behinekoz. Aldaketak izan ditzake esleipenetan eta zerbitzu berezietako zerrenden bazterteetan.
- Ebatzia (behin betikoa): deialdia ebatzi eta argitaratu da. Beharrak telematikoki esleitu dira.

2.2 Parte-hartze mota

Lau parte-hartze mota daude, hiru nahitaezkoak eta bata borondatezkoa, kidegoaren, espezialitatearen eta hizkuntzaren arabera, edo parekatutako lanpostuan:

2.2.1 Nahitaezko parte-hartzea

Irakasle funtzionarioak:

- Osasun arrazoiengatik zerbitzu eginkizunak eman dizkioten eta esleipen-ekitaldian lanpostua hautatu behar duten irakasleak.
- Irakastordu nahikoa ez izateagatik ikastetxez aldarazi dioten eta hurrengo ikasturterako destinoa aukeratu behar duten irakasleak, eta lanpostua ezabatu dioten irakasleak.
- Behin-behineko destinoa duten irakasle funtzionarioak.
- Praktiketako irakasle funtzionarioak.
- Jarduneko zerbitzura itzultzea eskatu duten irakasleak.

Eskualdean behin betiko destinoa duten irakasleak eta Entzumeneko eta Hizkuntzako Programa eta Egoera Ahulean dauden Ikasleei Laguntzeko Programan daudenean:

- Destinoa eskualdean duten irakasleak, beren ikastetxean edo ikastetxeetan beharra osorik desagertu bada.
- Lekualdatze lehiaketen bidez eskualdean destino berria lortu duten irakasleak.
- Destinoa eskualdean izanik, eskualde horretan ikastetxez aldatzeko prozeduran beren

borondatez parte hartu nahi duten irakasleak.

- Aurreko kasuetakoren batean egonik, semea/alaba zaintzeko edo aparteko egoeretarako zerbitzu eginkizunak onartu zaizkion langilea, salbu eta, azken kasu horretan, zerbitzu eginkizunak ikastetxe jakin baterako onartu bazaizkio.
- Antolamendu arrazoiengatik zerbitzu eginkizunak esleituta dituztenek, baldin eta azken lekualdatze lehiaketan eskualdean destino berria lortu badute.

Nahitaez parte hartu behar duten irakasle funtzionario deitutakoek parte hartzen ez badute, destinoa ofizioz esleituko zaie beren espezialitateko lanpostuen artean hutsik gelditzen direnen artean, lanpostuak telematikoki esleitu ondoren. Beren espezialitateko beharrik ez bada, destinoa beste espezialitate batean esleituko zaie, espezialitate hori baldin badute edo irakats badezakete.

2.2.2 Prestakuntzarako zerbitzu bereziak

Prestakuntzarako zerbitzu berezietan dauden lanpostuak bete nahi dituzten izangaiak.

Prestakuntzarako zerbitzu berezietan parte hartu behar duten irakasle funtzionario deitutakoek nahitaezko lanpostu guztiak hautatu beharko dituzte eta, berariazko eskakizun bat egiaztaturik badute, eskakizun hori duten lanpostuak.

Ez badute hori egiten eta ez bazaie lanposturik esleitzen, prestakuntzarako zerbitzu berezietako zerrendetatik baztertuko dira, baldin eta egoera hauetako baten bat gertatzen bada:

- Esleitu gabeko nahitaezko lanposturik gelditzen bada
- Zerrendan beheragoko posturen batean dauden beste izangai batzuei nahitaezko lanpostuak esleitu bazaizkie.
- Izangaiak berariazko eskakizunen bat egiaztaturik badu eta eskakizun hori duten esleitu gabeko lanpostuak gelditzen badira edo zerrendan beheragoko posturen batean dauden beste izangai batzuei esleitu bazaizkie.

Zerrendetatik ez baztertzeko, izangaiak behar den deialdian dauden kasuetako baten bat justifikatu beharko du eta hartan ezarritako epean egiaztatu beharko du.

Izangaiak onartuak dauden espezialitate eta hizkuntzen zerrenda guztietan mantenduko dira, horietako edozeinetan destinoa esleitzen bazaie.

2.2.3 Nahitaezko parte-hartzea beste zerrenda batetik

Behin-behineko eta praktiketako funtzionarioak, deitutako irakasle guztiendako aski lanposturik ez duten espezialitateetakoak. Beharturik daude parte hartzera, beren espezialitateaz gainera, antzekotzat jotzen den beste espezialitate batean.

Beste zerrenda batetik nahitaez parte hartu behar duten irakasle funtzionario deitutakoek ez badute lanposturik eskatzen, destinoa ofizioz esleituko zaie beren espezialitateko, edo antzekotzat jotzen den beste espezialitateko, lanpostuen artean hutsik gelditzen direnen artean, lanpostuak telematikoki esleitu ondoren.

2.2.4 Borondatezko parte-hartzea

Semea edo alaba zaintzeagatiko zerbitzu-eginkizunak edo aparteko egoerengatiko zerbitzu-eginkizunak eman zaizkien irakasle funtzionarioak.

Borondatezko parte-hartzearekin deitu diren irakasle funtzionarioak, baldin eta parte hartzen ez badute edo parte hartu izanagatik ere inongo lanposturik esleitzen ez bazaie, beren behin betiko destinoan geldituko dira eta, hartara, ulertuko da emandako zerbitzu-eginkizunei uko egiten dietela.

2.3 Zerrenda

Zerrenda esaten zaio kidegoa, espezialitatea eta hizkuntza konbinazioari, edo parekatutako lanpostua. Beharrak zein irakasleak zerrenda jakin batekoak dira.

Entzumeneko eta Hizkuntzako Programako eta Egoera Ahulean dauden Ikasleei Laguntzeko Programako eskualdean behin betiko irakasleen kasuan, zerrendak eremu geografikoa ere barne hartzen du.

3 INTERFAZEA



3.1 Goiburua



Orri guztiek dute atal komuna da. Beti dago bistara, orriaren goialdean.

- <http://www.navarra.es/> guneko zerbitzuetan nabigatzea
- Hezkuntza Departamentuaren logoa
- Laguntza: orri bat bistaratzen du, erabiltzailearen gidaliburuarekin eta ohikoenak diren galderekin.
- Hizkuntza hautatzea: bistaratuko den hizkuntza aldatzeko aukera ematen du (euskara edo gaztelania). Hautaturiko hizkuntza letra lodiz azalduko da.
- Erabiltzaile konektatua: konektatua dagoen erabiltzailearen izen-deiturak (orria publikoa bada hutsik azalduko da). Klik egitean, erabiltzaileak saioa ixten ahalko du eta orri nagusira berbideratuko da.

3.2 Nabigazio bidea



Goiburuaren beheko aldean dago.

Abiaturuko orritik ikusten ari zarenera arteko bidea erakusten du, baita orri horietara guztietara esteka ere.

3.3 Izenburua eta nabigazioa aurreko orrira



- Nabigazioa aurreko orrira: aplikazioaren nabigazio fluxuan aurreko orrira itzultzeko.
- Izenburua: ikusten ari zaren orriaren izenburu deskribatzailea.
- Botoiak: orriko ekintza nagusiak hautatzeko. Eskuinaldean daude, lerroan.

3.4 Oharrak

Ohar bat da

Izangaiendako interesgarriak diren argibideak. Hiru ohar mota daude:

Deialdi baten gainean klikatuz gero, deialdiko [Informazioa](#) erlaintzera joko duzu. Hortik irakasleak eta beharrak kontsultatu eta deialdian parte hartu ahal izanen duzu.

4605 lanpostu hutsak

151 zerrenda

Eskuinaldean, goian , deialdiko zerrenden eta beharren laburpena erakusten da. Haien gainean sakatuz gero, behar den erlaintzean zuzenean sar zaitezke.

4.2 Deialdi ebatziak

Nafarroa Tramiteak Gaiak Gobernu Gaurkotasuna [navarra.es](#)

Gobierno de Navarra
Departamento de Educación
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua
Laguntza

Castellano Euskara

Irakasle Funtzionarioen Lanpostu Esleipen Telematikoa (FLET)

Ohar orokorrak

Abiatuak diren deialdiak Deialdi ebatziak

i Jarraian begiratzeko ahalago duzu zer deialdi dauden ebatzirik. Sakatu deialdiaren gainean, esleitutako lanpostu hutsak ikusteko.

Deialdia 2/2021 **Ebatzia**

Deskribapena
Ekaineko deialdia

Partaidetzaren hasierako eguna
01-06-2021 10:00

Partaidetzaren amaierako eguna
10-06-2021 10:15

Jada ebatzita dauden deialdiak azalduko dira, parte-hartzea hasitako egunaren arabera ordenatua, berrienetik zaharrenean.

Bilaketa bat egin dezakezu  luparen ikonoa klikatuz. Erabili iragazkiak eta klikatu "Bilatu" botoia. Deialdi zenbakiaren arabera eta parte-hartze dataren arabera bila dezakezu.

Deialdiaren zk. Partaidetzaren hasiera data, noiztik Partaidetzaren hasiera data, noiz arte

1/2021 01-06-2021 



Garbitu Bilatu

Ebatzitako deialdiak [CSV](#) fitxategi batera esportatzeko, klikatu  botoian eta horrela deskargatu ahal izanen duzu fitxategia.

Deialdi baten gainean klikatuz gero, deialdiko [Informazioa](#) erlaintzera joko duzu. Hortik irakasleak eta esleipenak kontsultatu ahal izanen dituzu.

4.3 Deialdia

Deialdiaren gainean klik egin behar da, ondoko erlaintzetan: [Abiatuak diren deialdiak](#) edo [Deialdi ebatziak](#).

"Parte-hartzea" botoia (goiko aldean, eskuinean), parte hartzeko aldian baino ez da gaitua egonen.

4.3.1 Informazioa

Deialdiko informazio orokorra:

- Egoera: deialdiaren egoera.
- Deialdiaren zk.: deialdiaren zenbakia (zenbakia/urtea).
- Parte-hartzearen hasierako eguna: zein egunetatik aurrera egin ahal izanen dituzten irakasleek eskaerak deialdian.
- Partaidetzaren amaierako eguna: parte hartzeko epea zein egunetan bukatzen den. Egun horretatik aurrera jada ezin da eskaera gehiago aurkeztu.
- Azalpena: deialdiaren gaineko informazioa.



Deialdia 3/2021

Parte hartu

Ohar bat da

Informazioa	Irakasleak 151 zerrenda	Beharrak 4605
Deialdiaren parte hartzeko epea irekita badago, sakatu "Parte hartu" botoia eta deitua izanez gero sartzen ahalko zara zure eskaera egitera. Irakasleak erlaitzean ikus dezakezu zein irakasle izan diren deituak. Lanpostu hutsak erlaitzean ikus ditzakezu deialdiaren lanpostu hutsen datuak.		
Egoera ✓ Partaidetza irekia Deskribapena 3/2021	Deialdiaren zk. 3/2021	Partaidetzaren hasierako eguna 10-06-2021 10:00
		Partaidetzaren amaierako eguna 14-06-2021 08:30

← Itzuli hona: "Abiatuak diren deialdiak"

4.3.2 Irakasleak erlaitza

Irakasleak erlaitzean deialdiko izangaiak azalduko dira, zerrendatan multzokatuak.

Besterik ezean, zerrendak laburturik agertuko dira; zerrendaren goiburuan klik eginez gero, zabaldu eginen dira. Zerrenda bakoitzetik agertuko dira pertsona guztiak, zerrendan dauden postuaren arabera hurrenkeran. Pertsona bakoitzaren informazio hau erakutsiko da:

- Postua
- Izen-abizenak
- AHPko funtzionarioa
- Eranskina
- Profila (eskakizunak)
- Parte-hartze mota

NANaren (letra eta guzti) arabera bila dezakezu, ikusteko zein zerrenda(ta)n dagoen deitu(t)a.

Zerrendaren arabera bila dezakezu, zerrenda horretan deitutako irakasleak zein diren jakiteko.

Erabili iragazkiak eta sakatu "Bilatu" botoia.

NANa

Zerrenda

Garbitu Bilatu

Zerrenda bakoitzean, goiburuan, honako hau ageri da:

- Zerrendan dauden beharrak, guztira.
- Zerrendan dauden irakasleen kopurua.



[Informazioa](#)
[Irakasleak 151 zerrenda](#)
[Lanpostu hutsak 4605](#)

i Erlaitz honetan agertzen dira, zerrendatan multzokatutak (kidegoa/espezialitatea/hizkuntza), parte hartzen dutenen pertsonen zerrendak.

0590/BIOLOGIA ETA GEOLOGIA/G
72 lanpostu hutsak 1 irakasleak

Posizioa	Izen-deiturak	Eranskina	Profilak	Partaidetza mota
1		ZERBITZU-EGINKIZUNAK SEMEA EDO ALABA ZAINTZEAGATIK EDO SALBUESPENEN GORABEHERENGATIK	FL	Borondatezkoa

0590/EKONOMIA/G
26 lanpostu hutsak 4 irakasleak

Posizioa	Izen-deiturak	Eranskina	Profilak	Partaidetza mota
1		BEHIN-BEHINEKOAK		Nahitaezkoa
2		BEHIN-BEHINEKOAK	I, PI	Nahitaezkoa
3		BEHIN-BEHINEKOAK		Nahitaezkoa
4		BEHIN-BEHINEKOAK	FL, I	Nahitaezkoa

4.3.3 Beharrak erlaitza

Deialdian jasotako beharrak azalduko dira.

- Id.:** beharraren identifikatzaile bakarra.
- Zerrenda:** beharraren kidegoa/espezialitatea/hizkuntza, edo parekatutako lanpostuarena. Entzumeneko eta Hizkuntzako Programako eta Egoera Ahulean dauden Ikasleei Laguntzeko Programako eskualdean behin betiko irakasleen kasuan, zerrendak eremu geografikoa ere barne hartzen du.
- Herria:** ikastetxea zein herritan dagoen.
- Ikastetxea:** ikastetxea.
- Profilak:** beharrean diren eskakizunak.
- Murritzapenak (lanaldiarena/ordutegiarena):** beharraren murritzapenak, haren irakastordu kopuruaren arabera.
- Lanaldia (irakastorduen kopurua):** irakastordua.
- Ibilt.:** beharra ibiltaritzakoa den adierazten du. Beharra ibiltaritzakoa bada, Oharrak eremuan informazio gehiago aurkituko duzu.



Beharraren fitxa osoa bistaratzeko, ikonoan klikatu eta ondoko eremuak azalduko zaizkizu:

- Oharrak:** beharraren gaineko oharrak. Ibiltaritzaren eta trebetasun berezien gaineko informazioa izan dezake.



Ohar bat da

Informazioa

Irakasleak 151 zerrenda

Lanpostu hutsak 4605

Erlaitz honetan agertzen dira deialdiaren lanpostu huts guztiei buruzko argibideak. Sakatu v ikonoa, argibide gehiago eskuratzeko lanpostu huts bakoitzari buruz.



Guztira: 4605 - 1. orr. 47 izanik



Id.	Zerrenda	Herria	Ikastetxea	Profilak	Murrizketak (lanaldia/ordutegia)	Lanaldia (irakastorduen kopurua)	Ibilt.
3055	0590/ENPRESEN ADMINISTRAZIOA/G	LIZARRA	DE ESTELLA IIP			Lanaldi Osoa (18)	Ez
3167	0590/ENPRESEN ADMINISTRAZIOA/G	LIZARRA	DE ESTELLA IIP			Lanaldi Osoa (18)	Ez
3168	0590/ENPRESEN ADMINISTRAZIOA/G	LIZARRA	DE ESTELLA IIP			Lanaldi Osoa (18)	Ez
3169	0590/ENPRESEN ADMINISTRAZIOA/G	LIZARRA	DE ESTELLA IIP		1/3 L.M., 58 urtetik gora	Orduak (12)	Ez

Bilaketa bat egin dezakezu luparen ikonoa klikatuz. Erabili iragazkiak eta klikatu "Bilatu" botoian. NANaren, zerrendaren, herriaren eta ikastetxearen arabera egin ditzakezu bilaketak.

NANa

Zerrenda

Herria

Ikastetxea

Eskaintzak CSV fitxategi batera esportatzeko, klikatu botoian eta horrela deskargatu ahal izanen duzu fitxategia.

4.3.4 Ebazpena erlaitza

Erlaitz hau soilik izanen duzu erabilgarri deialdia ebatzita badago. Erakusten dira esleitutako beharrak, "Bazterketak zerbitzu berezietako zerrendetatik" egoerara igaro diren irakasleak eta esleitu gabe gelditu diren beharrak.

Bilaketa egin dezakezu NANarekin, behar bat esleitu zaizun edo baztertuetara pasatu zaren egiaztatzeke. Sar ezazu zure NANa (letra eta guzti) eta sakatu "Bilatu" botoia.

NANa

Erlaitz bat CSV fitxategi batera esportatzeko, klikatu botoian eta horrela deskargatu ahal izanen duzu fitxategia.

Nafarroa Tramiteak Gaiak Gobernu Gaurkotasuna **navarra.es**

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentua **Laguntza** Castellano Euskara

Deialdia

← Itzuli hona: "Deialdi ebatziak" Deialdia 1/2021

Informazioa Ebazpena

Jarraian begiratzen ahalko duzu zer esleipen egin diren eta zer pertsona pasatzen diren aukeragarri ez egotera. ¿Zer egin behar dut lanpostu huts bat esleitzen zaidanean?

NANa Garbitu Bilatu

Esleipenak 126 Baztertzak 0 Esleitu gabeko lanpostu hutsak 499

Guztira: 126 - 1. orr. 2 izanik

Irakaslea	AHPko funtzionarioa	Id.	Zerrenda	Herria	Ikastetxea	Profilak	Murrizketak (lanaldia/ordutegia)	Lanaldia (irakastorduen kopurua)	Ibilt.
		3591	0590/EKONOMIA/G	IRUÑA	PLAZA DE LA CRUZ BHI	45% L.M.	Orduak (10)	Ez	
		3592	0590/EKONOMIA/G	IRUÑA	PLAZA DE LA CRUZ BHI		Lanaldi Osoa (18)	Ez	
		3663	0590/EKONOMIA/G	TUTERA	VALLE DEL EBRO BHI		Lanaldi Osoa (18)	Ez	
		3664	0590/EKONOMIA/G	TUTERA	VALLE DEL EBRO BHI		Lanaldi Osoa (18)	Ez	

4.4 Nire eskaerak

Deialdiko "Parte hartu" botoian klikatuz sartuko zara.

Sisteman ziurtagiri elektronikoaren, Estatuko Administrazio Orokorreko CI@ve egiaztagiriaren edo EDUCako erabiltzailearen bidez zeure burua autentifikatu ondoren, "Nire eskaerak" orriara joko duzu. Bertan deialdian egindako eskaera guztiak (halakorik balego) azalduko zaizkizu.

Gehienez ere 10 eskaera aurkez ditzakezu deialdi batean, baina aurkezturiko azken eskaera baino ez da baliozkoa izanen.

"Eskaera berria" botoia sakatu, eskaera berri bat sortzeko.

Nafarroa Tramiteak Gaiak Gobernu Gaurkotasuna **navarra.es**

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentua **Laguntza** Castellano Euskara

Deialdia / Nire eskaerak

← Itzuli deialdiaren fitxara Deialdia 3/2021 - Nire eskaerak **Eskaera berria**

Ohar bat da

Sakatu "Eskaera berria" botoia, eskaera berria sortzeko. **Gehienez 10 eskaera** aurkeztu ditzakezu deialdi bakoitzean. Oroitu ezen, deialdi honetan eskaera bat aurkeztua baldin baduzu, azken hori baliogabeturik geldituko dela eskaera berria aurkeztean. Deskarga dezakezu aurkeztutako azken eskaeraren inprimakia (sakatu [ikonoa](#)). Gainera, ikus eta/edo baliogabetu ditzakezu aurreko eskaerak, eskaera bakoitzaren gainean sakatuz.

Egindako eskaerak

Eskaeraren bat aurkeztua baduzu, "Eskaera berria" botoian klikatzean adieraziko zaizu jada badituzula aurkezturiko eskaerak. Klikatu "Jarraitu" botoia, beste eskaera bat egin nahi baduzu.

**Baduzu eskaera bat aurkeztuta**✕

i Baduzu eskaera bat aurkeztua. Sakatu "Jarraitu" botoia, eskaera berria egiteko. Zure eskaera aurkeztu arte, ez da erregistraturik geldituko. Oroitu deialdi honetan lehenago egindako eskaera guztiak baliogabeturik geldituko direla.

UtziJarraitu

Eskaera bateko zirriborro bat bazenu, "*Editatu zirriborroa*" botoia agertuko litzateke. Zirriborroa editatzen segitzeko, sakatu botoi hori edo eskaeraren gainean egin klik.

[Deialdia](#) / Nire eskaerak

← Itzuli deialdiaren fitxara **Deialdia 3/2021 - Nire eskaerak** Zirriborroa aldatu

Ohar bat da

i Sakatu "Eskaera berria" botoia, eskaera berria sortzeko. **Gehienez 10 eskaera** aurkeztu ditzakezu deialdi bakoitzean. Oroitu ezen, deialdi honetan eskaera bat aurkeztua baldin baduzu, azken hori baliogabeturik geldituko dela eskaera berria aurkeztean. Deskarga dezakezu aurkeztutako azken eskaeraren inprimakia (sakatu  ikonoa). Gainera, ikus eta/edo baliogabetu ditzakezu aurreko eskaerak, eskaera bakoitzaren gainean sakatuz.

Egindako eskaerak

 Zirriborroa	Eskaeraren data 10-06-2021 22:08:12	
 Aurkeztuta	Eskaeraren data 10-06-2021 14:20:49	Id. Registrako dokumentua 2020/0 

← Itzuli deialdiaren fitxara

4.4.1 Kontsultatu aurkeztutako eskaera bat

Deialdi batean parte hartzeko aldiari, deialdi horretan egindako eskaera guztiak kontsulta ditzakezu. Horretarako, eskaeraren gainean sakatu eta eskaera bera hautaturiko beharrekin azalduko zaizu.

Eskaera hau kontsulta moduan dago

Izen-deiturak	Profilak	Adina	Helbide elektronikoa *	Sakelako telefonoa *
	EE, LOG			

Lanpostu hutsaren zerrenda	Posizioa	Eranskina	Partaidetza mota
0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	1	LEKUJZ ALDATUAK IRAKASTORDU NAHIKORIK EZ IZATEAGATIK	Nahitaezkoa
0597/HAUR HEZKUNTZA/G	5	LEKUJZ ALDATUAK IRAKASTORDU NAHIKORIK EZ IZATEAGATIK	Nahitaezkoa
0597/LEHEN HEZKUNTZA/G	9	LEKUJZ ALDATUAK IRAKASTORDU NAHIKORIK EZ IZATEAGATIK	Nahitaezkoa
0597/PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA/G	2	LEKUJZ ALDATUAK IRAKASTORDU NAHIKORIK EZ IZATEAGATIK	Nahitaezkoa

Pos.	Id.	Zerrenda	Herria	Ikastetxea	Profilak	Murritzketak (lanaldia/ordutegia)	Lanaldia (irakastorduen kopurua)	Ibilt.	Derrigorrezkoa
1	3171	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ERRIBERRI	PRINCE DE VIANA HLHIP	LS3		Lanaldi Osoa (25)	Ez	Ez
2	3173	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ERRIBERRI	PRINCE DE VIANA HLHIP	LS1, EE	56 urtetik gora	Orduak (23)	Ez	Ez
3	3934	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	CINTRUENIGO	OTERO DE NAVASCUES HLHIP		1/4 L.M., 58 urtetik gora	Orduak (18)	Ez	Ez
4	3935	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	CINTRUENIGO	OTERO DE NAVASCUES HLHIP			Orduak (24)	Ez	Ez

4.4.2 Deskargatu eskaeraren PDFa

Parte-hartze aldian, aurkezturiko azken eskaeraren PDFa eskura egonen da, jaisteko.

[Nireeskaerak](#) orrian, sakatu  ikonoa.

Gainera, zure eskaera kontsulta dezakezu hemen: <https://administracionelectronica.navarra.es/CarpetaCiudadana/> herritar karpetan edo <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/linea/Erregistro-Orokor-Elektronikoa> Erregistro Orokor Elektronikoa.

4.4.3 Deuseztatu egindako eskaera bat

Deialdi batean parte hartzeko aldian, deialdi horretan aurkeztutako eskaera deusezta dezakezu. Gogoan izan ezen, eskaera deuseztatzen baduzu, ez dela kontuan hartuko deialdia ebazteko orduan.

Aurkezturiko eskaerak bakarrik deusezta daitezke. Horretarako, sakatu eskaera (aurkeztua) eta goiko aldean "Deuseztatu eskaera" botoia agertuko da.

Sakatu "Deuseztatu eskaera" botoia eta berresteko leihoan sakatu berriz "Deuseztatu eskaera" botoia.


Eskaera baliogabetu

i Aurkeztuta dagoen eskaera hau baliogabetuz gero, ez da deialdia ebazterakoan kontuan hartuko. Eskaera berri bat aurkeztu beharko duzu deialdian berriz parte hartzeko.

Utzi
Eskaera baliogabetu

4.5 Eskaera

Eskaera aurkezteko orriak horizontalki banaturiko 3 atal desberdin ditu.

4.5.1 Datu pertsonalak

- Izen-deiturak: irakaslearen izena, deiturak eta NANA. Ezin dira aldatu.
- Profilak: irakasleak zein profilekin parte hartzen duen. Irakasleak egiaztatuak dituen eskakizunak, deialdia argitaratu den unean. Ezin dira aldatu.
- Adina: irakasleak deialdia egiten den urteko abenduaren 31n duena. Zehaztuko ditu hauta ditzakeen lanaldi partzialak dituzten beharrak
- Posta elektronikoa: esleipena zein helbide elektronikotan jakinaraziko den. Besterik ezean, egindako azken eskaeran sartutako helbide elektronikoa edo, halakorik ez balego, Hezkuntza Departamentuak duen helbide elektronikoa. Hutsa balego, izangaiak helbide elektroniko bat eman beharko du. Nahitaezko eremua da.
- Telefono mugikorra: esleipena SMS bidez jakinarazteko telefonoa. Besterik ezean, egindako azken eskaeran sartutako telefono mugikorra edo, halakorik ez balego, Hezkuntza Departamentuak duena. Hutsa balego, izangaiak telefono mugikor baten zenbakia eman beharko du. Nahitaezko eremua da.

Izen-deiturak	Profilak	Adina	Helbide elektronikoa	Sakelako telefonoa

4.5.2 Parte-hartze mota

- Beharraren zerrenda: zure eskaeran hauta d(e)it)zakezun behar(ra)ren kidegoa/espezialitatea/hizkuntza, edo parekatutako lanpostuarena. Entzumeneko eta Hizkuntzako Programako eta Egoera Ahulean dauden Ikasleei Laguntzeko Programako eskualdean behin betiko irakasleen kasuan, zerrendak eremu geografikoa ere barne hartzen du.
- Postua: zerrendan zein postutan zauden.
- Eranskina: zerrendara zein eranskinetatik deitu zaizun.
- Parte-hartze mota: nahitaezkoa, prestakuntzarako zerbitzu bereziak, nahitaezkoa beste zerrenda batzuetatik edo borondatezkoa.

Lanpostu hutsaren zerrenda	Posizioa	Eranskina	Partaidetza mota
0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	1	LEKUZ ALDATUAK IRAKASTORDU NAHIKORIK EZ IZATEAGATIK	Nahitaezkoa
0597/HAUR HEZKUNTZA/G	5	LEKUZ ALDATUAK IRAKASTORDU NAHIKORIK EZ IZATEAGATIK	Nahitaezkoa
0597/LEHEN HEZKUNTZA/G	9	LEKUZ ALDATUAK IRAKASTORDU NAHIKORIK EZ IZATEAGATIK	Nahitaezkoa
0597/PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA/G	2	LEKUZ ALDATUAK IRAKASTORDU NAHIKORIK EZ IZATEAGATIK	Nahitaezkoa

4.5.3 Eskaeran barne hartutako beharrak

Jarraian, eskaeran barne hartutako beharrak adierazten dira, ordenan. Besterik ezean, atal hau hutsa azalduko da, lanpostuak aukeratu arte.

Atal honetan irakasleak beharrak berrordena ditzake, beharrak kendu eta behar berriak gehitu.

Aukeraturako lanpostu hutsak guztira 0

Hautatu lanpostu hutsak

Pos.	Id.	Zerrenda	Herria	Ikastetxea	Profilak	Murritzetak (lanaldia/ordutegia)	Lanaldia (irakastorduen kopurua)	Ibilt.	Derrigorrezkoa
Ez duzu inolako lanpostu hutsik sartu zure eskaeran. Sakatu "Hautatu lanpostu hutsak" botoia.									
Aukeraturako lanpostu hutsak zerrendatan multzokatuak									
		0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G							
		0597/HAUR HEZKUNTZA/G							
		0597/LEHEN HEZKUNTZA/G							
		0597/PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA/G							

5 DEIALDI BATEAN PARTE HARTZEA

Deialdi batean parte hartu ahal izateko deitua izan behar duzu. Deituak nortzuk izan diren jakiteko, jo [Irakasleak](#) erlaintzera.

Parte-hartze aldia irekia badago, deialdiko fitxan (goialdean, eskuinean) "*Parte hartu*" botoia azalduko da.

Sakatu botoia autentifikatzeko eta eskaera berri bat sortzeko prozesua abiatzeko.

Parte hartu

5.1 Autentifikazioa

Autentifikatzeko hiru modu daude:

 nafarroa.eus

ES EU

Tramitar solicitudes para participar en la adjudicación telemática de plazas del personal funcionario docente

Zerbitzuan sartzeko identifikazioa

© asteartea 2022ko martxoaren 22a 11:59



Ziurtagiri digitala edo
eNANa



Cl@ve kredentziala



EDUCAko erabiltzailea

5.1.1 Cl@ve

Cl@ve identifikazio elektronikorako sistema bat da, administrazio publikoen zerbitzuetan Internet bidez sartzeko prestatua.

Herritarrek erabiltzekoa da. Erakundeek, antolakundeek eta enpresek ziurtagiri digitala erabili behar dute.

Cl@ve eskatzeko behar da:


- Indarrean dagoen identifikazio-agiri bat: NANa, pasaportea/nortasun-agiria edo AIT
- Telefono mugikor baten zenbakia: erabiltzaile bakoitzarendako bakarra
- Posta elektronikoko kontu bat

[Cl@ve](#)ri buruzko informazio gehiago, hemen:

5.1.2 Erabiltzaile ziurtagiria

Zure nabigatzailean erabiltzaile ziurtagiria instalatua izan beharko duzu. "*Jarraitu*" botoian klikatzean, leiho bat azalduko da, eskura dauden ziurtagiriekin

- [NAN elektronikoa](#)
- [Ziurtagiri digitala](#)



5.1.3 EDUCaKo erabiltzailea

EDUCAko erabiltzaile-izenaren bidezko sarbidea

Erabiltzailea

Pasahitza


[Lehenbiziko aldiz sartuko naiz / Ez dut pasahitza gogoratzen](#)

Hasi saioa

EDUCAn sartzeko ohiko erabiltzaile-izena da, eta normalean honela osatzen da: izenaren hasierako letra, eta, ondoren, lehen abizeneko karaktere batzuk eta bigarren abizeneko karaktere bat (adibidez, *pgarciaj*). Pasahitza norberak aukeratzen du, baina gutxienezko segurtasun batzuk bete behar ditu: gutxienez 8 karaktere izan behar ditu, eta horien artean letra xehe bat eta zenbaki bat bederen izan behar ditu.

Educa-ko erabiltzailearekin sartzen zaren lehenbiziko aldia bada, edo ez bazara zure pasahitzaz oroitzen, beste pasahitz bat konfiguratzeko ahal duzu honako honi sakatuz: [Lehenbiziko aldiz sartuko naiz / Ez dut pasahitza gogoratzen](#)

Ez bazaude deitua, abisu mezu bat azalduko zaizu.



Deitutakoen artean bazaude, [Nire eskaerak](#) orrira jo eta goiburuko eskuinaldean irakaslearen izena eta deiturak azalduko dira.

5.2 Eskaera berria

Behin sisteman zeure burua autentifikatu ondoren, [Nire eskaerak](#) orrian sartuko zara Deialdian

egindako eskaera guztiak azalduko dira (halakorik balego).

Gehienez ere 10 eskaera aurkez ditzakezu deialdi batean, baina aurkezturiko azken eskaera baino ez da baliozkoa izanen.

"Eskaera berria" botoia sakatu, eskaera berri bat sortzeko.

Nafarroa Tramiteak Gaiak Gobernu Gaurkotasuna [navarra.es](#)

Gobierno de Navarra
Departamento de Educación
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua
Laguntza

Castellano Euskara

Deialdia / Nire eskaerak

← Itzuli deialdiaren fitxara Deialdia 3/2021 - Nire eskaerak

Eskaera berria

Ohar bat da

i Sakatu "Eskaera berria" botoia, eskaera berria sortzeko. **Gehienez 10 eskaera** aurkeztu ditzakezu deialdi bakoitzean. Oroitu ezen, deialdi honetan eskaera bat aurkeztua baldin baduzu, azken hori baliozgabez geldituko dela eskaera berria aurkeztean. Deskarga dezakezu aurkeztutako azken eskaeraren inprimakia (sakatu [ikonoa](#)). Gainera, ikus eta/edo baliozgabez ditzakezu aurreko eskaerak, eskaera bakoitzaren gainean sakatuz.

Egindako eskaerak

Eskaeraren bat aurkeztua baduzu, "**Eskaera berria**" botoian klikatzean adieraziko zaizu jada badituzula aurkezturiko eskaerak. Klikatu "**Jarraitu**" botoia, beste eskaera bat egin nahi baduzu.

! Baduzu eskaera bat aurkeztuta

i Baduzu eskaera bat aurkeztua. Sakatu "Jarraitu" botoia, eskaera berria egiteko. Zure eskaera aurkeztu arte, ez da erregistraturik geldituko. Oroitu deialdi honetan lehenago egindako eskaera guztiak baliozgabez geldituko direla.

Utzi Jarraitu

5.2.1 Eskaerari beharrak gehitzea

"Hautatu beharrak" botoian klikatu, zure eskaerari beharrak gehitzeko. Leiho bat azalduko zaizu, irakasleak eskura dituen beharrekin. Gogoan izan beharrak orrialdekatuta agertuko direla. Orrialde bakoitzean 10 behar ageri dira, gehienez ere. Orrialdeen artean mugitzeko, erabili botoi hauek:



Gehitu lanpostu hutsak nire eskaerari

i Zure eskaerari lanpostu huts bat gehitzeko, sakatu **+** botoia. Lanpostu huts guztiak gehitu nahi badituzu, sakatu "Denak gehitu" botoia. Zer ordenatan gehitzen dituzun, ordena horretan berean sartuko dira eskaeran. Oroitu lanpostu hutsak gero berriz ordenatzen ahal dituzula eskaeratik abiatuta. Sakatu **▼** ikonoa, argibide gehiago eskuratzeko lanpostu huts bakoitzari buruz.



Denak gehitu

Guztira: 807 - 1. orr. 81 izanik



Id.	Zerrenda	Herria	Ikastetxea	Profilak	Murrizketak (lanaldia/ordutegia)	Lanaldia (irakastorduen kopurua)	Ibilt.
	15360 0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ABLITAS	SAN BABIL HLHIP		2/5 L.M.	Orduak (15)	Bai
	11584 0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ALLO	LA CRUZ HLHIP			Lanaldi Osoa (25)	Ez
	12029 0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ALTSASU	ZELANDI HLHIP		1/8 L.M., 57 urtetik gora	Orduak (22)	Ez
	13667 0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ANDOSILLA	VIRGEN DE LA CERCA HLHIP			Lanaldi Osoa (25)	Ez
	10825 0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	AÑORBE	AÑORBE HLHIP			Lanaldi Osoa (25)	Ez

Klikatu luparen ikonoan eta eskura dauden beharren bilaketa iragazi bat egiteko eremuak azalduko zaizkizu. Bilaketak zerrendaren, herriaren, lanaldi osoaren, nahitaezko lanpostuaren eta identifikatzailearen arabera egin ditzakezu.

Behin bilaketa irizpideak ezarrita, sakatu "**Bilatu**" botoia. Soilik azalduko zaizkizu ezarritako irizpideekin bat egiten duten beharrak.

Iragaziak garbitu nahi badituzu, sakatu "**Garbitu**" botoia eta bilaketa irizpideak desagertuko dira. Sakatu berriz "**Bilatu**" botoia, berriz ere behar guztiak bistaratzeko.

Gehitu lanpostu hutsak nire eskaerari

i Zure eskaerari lanpostu huts bat gehitzeko, sakatu **+** botoia. Lanpostu huts guztiak gehitu nahi badituzu, sakatu "Denak gehitu" botoia. Zer ordenatan gehitzen dituzun, ordena horretan berean sartuko dira eskaeran. Oroitu lanpostu hutsak gero berriz ordenatzen ahal dituzula eskaeratik abiatuta. Sakatu **▼** ikonoa, argibide gehiago eskuratzeko lanpostu huts bakoitzari buruz.



Denak gehitu

Zerrenda

Herria

Ikastetxea

Lanaldi Osoa

Id.

Garbitu

Bilatu

Guztira: 807 - 1. orr. 81 izanik



Id.	Zerrenda	Herria	Ikastetxea	Profilak	Murrizketak (lanaldia/ordutegia)	Lanaldia (irakastorduen kopurua)	Ibilt.
	15360 0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ABLITAS	SAN BABIL HLHIP		2/5 L.M.	Orduak (15)	Bai
	11584 0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ALLO	LA CRUZ HLHIP			Lanaldi Osoa (25)	Ez

Behar bat zehazki gehitzeko, ezkerreko lehen zutabean dagoen ikonoa sakatu behar duzu. Izan gogoan beharrak gehitutako ordenan sartuko direla eskaeran (geroago berrordenatzeko aukera izanen duzu).

Atzeko aldean abisu bat azalduko zaizu, adierazteko, beharra behar bezala gehitu dela. Mezua segundo batzuen buruan desagertuko da.

Zure eskaerari 15360 lanpostu hutsa gehitu zaio.

Zure eskaerari lanpostu huts bat gehitzeko, sakatu + botoia. Lanpostu huts guztiak gehitu nahi badituzu, sakatu "Denak gehitu" botoia. Zer ordenatan gehitzen dituzun, ordena horretan berean sartuko dira eskaeran. Oroitu lanpostu hutsak gero berri ordenatzen ahal dituzula eskaeratik abiatuta. Sakatu v ikonoa, argibide gehiago eskuratzeko lanpostu huts bakoitzari buruz.

Denak gehitu

Zerrenda Herria Ikastetxea

Lanaldi Osoa Id.

Garbitu Bilatu

Guztira: 806 - 1. orr. 81 izanik

Id.	Zerrenda	Herria	Ikastetxea	Profilak	Murritzketak (lanaldia/ordutegia)	Lanaldia (irakastorduen kopurua)	Ibilt.
11584	0597/ENTZUMENA ETA ALLO HIZKUNTZA/G	ALLO	LA CRUZ HLHIP			Lanaldi Osoa (25)	Ez
12029	0597/ENTZUMENA ETA ALTSASU HIZKUNTZA/G	ALTSASU	ZELANDI HLHIP		1/8 L.M., 57 urtetik gora	Orduak (22)	Ez

Behar guztiak masiboki gehitzeko, "Denak gehitu" botoia baliatu behar duzu. Botoi horrek zure eskaeran sartuko ditu une horretan bistara dituzun behar guztiak. Bilaketa irizpiderik ez baduzu aplikatu, eskura dauden behar guztiak gehituko zaizkizu.

Behar guztiak zure eskabidean gehitu aurretik, baiestea eskatuko zaizu. Sakatu "Denak gehitu" botoia, baiesteko.

Denak gehitu 806

Zure eskaerari eskailanpostu hutstiak gehituko zaizkio, agertzen diren hurrenkeran. Ez dira lanpostu hutsak gehituko horietarako eskatzen diren profilak betetzen ez badituzu.

Utzi **Denak gehitu**

Goiko aldean abisu bat azalduko zaizu, emaitzaren gainera informazioarekin. Urdinez azalduko zaizu zure eskaeran behar bezala gehitu den beharren kopuruaren gainera informazioa.

Horiz azalduko zaizu beharren gainera dagoen informazioa (behar horiek ezin izan dira eskaerara gehitu izangaiak beharretan eskatutako eskakizunak betetzen ez dituelako edo lanaldi partziala bateragarria ez delako (ikus hurrengo [Lanaldi bateragarriak](#) atala).



⚠ Ezin duzu 12172 lanpostu hutsa hautatu murrizketa ez delako bateragarria.
 ⚠ Ezin duzu 13090 lanpostu hutsa hautatu murrizketa ez delako bateragarria.
 ⚠ Ezin duzu 14090 lanpostu hutsa hautatu LS1 profilak ez dauzkazulako.
 ⚠ Ezin duzu 12965 lanpostu hutsa hautatu LS3 profilak ez dauzkazulako.
 ⚠ Ezin duzu 3935 lanpostu hutsa hautatu murrizketa ez delako bateragarria.
 ⚠ Ezin duzu 12727 lanpostu hutsa hautatu LS3 profilak ez dauzkazulako.
 ⚠ Ezin duzu 13366 lanpostu hutsa hautatu murrizketa ez delako bateragarria.
 ⚠ Ezin duzu 11040 lanpostu hutsa hautatu murrizketa ez delako bateragarria.
 ⚠ Ezin duzu 13619 lanpostu hutsa hautatu LS3 profilak ez dauzkazulako.
 ⚠ Ezin duzu 13623 lanpostu hutsa hautatu murrizketa ez delako bateragarria.
 ⚠ Ezin duzu 14674 lanpostu hutsa hautatu murrizketa ez delako bateragarria.
 ⚠ Ezin duzu 11538 lanpostu hutsa hautatu murrizketa ez delako bateragarria.
 ⚠ Ezin duzu 12302 lanpostu hutsa hautatu murrizketa ez delako bateragarria.
 ⚠ Ezin duzu 3171 lanpostu hutsa hautatu LS3 profilak ez dauzkazulako.
 ⚠ Ezin duzu 3173 lanpostu hutsa hautatu murrizketa ez delako bateragarria.
 ⚠ Ezin duzu 13334 lanpostu hutsa hautatu murrizketa ez delako bateragarria.
 ⚠ Ezin duzu 14110 lanpostu hutsa hautatu murrizketa ez delako bateragarria.

Itxi leihoa goialdean eskuinean dagoen gurutzea sakatuz edo leihotik kanpo, alde gris ilunean klikatuz.

Hautatutako beharrak azalduko zaizkizu, aurreko leihotik gehituz joan zaren ordena berean.

Gogoan izan hautatutako beharrak orrialdekatuta agertuko direla. Orrialde bakoitzean 10 behar agertuko dira, gehienez ere. Orrialdeen artean mugitzeko, kontrolak erabil ditzakezu.

Beharren behealdean ageri dira hautatutako beharren kopurua, zerrendaren arabera ordenatuta.

Aukeratutako lanpostu hutsak guztira 710								
1. orr. 71 izanik								
	Pos.	Id.	Zerrenda	Herria	Ikastetxea	Profilak	Murrizketak (lanaldia/ordutegia)	Lanaldia (irakastorduen kopurua)
	1	15360	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ABLITAS	SAN BABIL HLHIP		2/5 L.M.	Orduak (15)
	2	11584	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ALLO	LA CRUZ HLHIP			Lanaldi Osoa (25)
	3	12029	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ALTSASU	ZELANDI HLHIP		1/8 L.M., 57 urtetik gora	Orduak (22)
	4	13667	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ANDOSILLA	VIRGEN DE LA CERCA HLHIP			Lanaldi Osoa (25)
	5	10825	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	AÑORBE	AÑORBE HLHIP			Lanaldi Osoa (25)
	6	12448	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ARGUEDAS	SANCHO RAMIREZ HLHIP			Lanaldi Osoa (25)
	7	14660	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ARRONIZ	ARRONIZ HLHIP	EE	1/8 L.M., 57 urtetik gora	Orduak (22)
	8	13153	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ARTAXOA	URRACA REINA HLHIP		1/8 L.M., 57 urtetik gora	Orduak (22)
	9	12171	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	BARAÑAIN	EULZA HLHIP			Lanaldi Osoa (25)
	10	12712	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	BERIAIN	BERIAIN HLHIP	EE, LOG		Lanaldi Osoa (25)
Aukeratutako lanpostu hutsak zerrendatan multzokatuak								
0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G			72					
0597/HAUR HEZKUNTZA/G			137					
0597/AHEEN HEZKUNTZA/G			362					
0597/PEDAGOGIA TERAPUTIKOA/G			149					

5.2.2 Lanaldi partzial bateragarriak

Karrerako funtzionarioek lanaldi partzialetako irakastorduak dauzkaten lanpostuak hautatzen ahalko dituzte.

Honako hauek dira lanaldi partzialeko lanpostuen ordu zehatzak, murrizketaren arabera aukera daitezkeenak:

LEHEN HEZKUNTZA															
	Lanaldi murrizketa								Eskola ordutegiaren murrizketa, adinaren arabera						
Murrizketa	2/3	1/2	% 45	2/5	1/3	1/4	1/6	1/8	>55 Haur Hezk.	>55 Lehen Hezk. eta Hezk. Ber.	>56 Haur Hezk.	>56 Lehen Hezk. eta Hezk. Ber.	>57 Haur Hezk.	>57 Lehen Hezk. eta Hezk. Ber.	>58
Lanaldia (ordutan)	9	13	14	15	16	18	21	22	23	24	22	23	21	22	18

BIGARREN HEZKUNTZA / IRAKASKUNTZA ERTAINAK												
	Lanaldi murrizketa								Eskola ordutegiaren murrizketa, adinaren arabera			
Murrizketa	2/3	1/2	% 45	2/5	1/3	1/4	1/6	1/8	>55	>56	>57	>58
Lanaldia (ordutan)	6	9	10	11	12	13	15	16	17	16	15	12

Adinagatik irakastorduek murrizteko eskubidea duten funtzionarioek ere aukera dute dagokien murrizketa baino baxuagokoa duen ordutegia duten lanpostuak hautatzeko. Lanpostu horietako bat esleitzuz gero, irakasleak ezin izanen du esleitutako lanpostuari dagokion irakastordu-murrizketa baino murrizketa handiagorik hartu.

Adibidea: 58 urtetik gorako maisu edo maistra batek 18 orduko beharrak hartzen ahal ditu, 7 irakastorduko murrizketa dagokiolako. 19, 20, 21, 22, 23 eta 24 orduko beharrak ere betetzeko aukera emanen zaio, baina lanpostu horietako bat esleitzen bazaio, ezin izanen du esleituriko beharrari dagokion murrizketa baino murrizketa handiagorik eskatu.

Praktiketako funtzionarioek beharrak hauta ditzakete (lanpostu horien irakastorduek murriztuta egonen dira 1/2, % 45, 2/5, 1/3, 1/4, 1/6 eta 1/8). Aurreko ataleko tauletan ageri da lanaldi murrizketei zenbat ordu dagozkien. Lanaldi murrizketa daukan lanpostu bat esleitzeak praktikaldiaren epea aldatzea ekarriko du, horretarako onetsitako ebazpenean ezarritakoaren arabera.

5.2.3 Eskaerako beharrak berrordenatzea

Izan gogoan beharrak zure eskaeran "Gehitu beharrak nire eskaerari" izeneko leihoan gehitzerakoan erabili duzun ordenan azalduko direla.

Ordena jakin batean gehitzen badituzu, ondoren eskaintzak berrordenatu beharko dituzu.

Eskaeran jada sartuta dauden beharren ordena aldatzeko, lehenik eta behin behar bat hautatu behar duzu (lerroaren gainean klik eginez – ikusiko duzu nola hautaturiko beharra kolore horira pasatzen den). Ondoren, sakatu gezien botoiak, gora edo behera mugitzeko.

Aukeraturako lanpostu hutsak guztira **710**

Hautatu lanpostu hutsak

1. orr. 71 izanik

Pos.	Id.	Zerrenda	Herria	Ikastetxea	Profilak	Murritzaketak (lanaldia/ordutegia)	Lanaldia (irakastorduen kopurua)	Ibilt.
1	15360	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ABLITAS	SAN BABIL HLHIP		2/5 L.M.	Orduak (15)	Bai
2	11584	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ALLO	LA CRUZ HLHIP			Lanaldi Osoa (25)	Ez
3	12029	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ALTSASU	ZELANDI HLHIP		1/8 L.M., 57 urtetik gora	Orduak (22)	Ez
4	13667	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ANDOSILLA	VIRGEN DE LA CERCA HLHIP			Lanaldi Osoa (25)	Ez
5	10825	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	AÑORBE	AÑORBE HLHIP			Lanaldi Osoa (25)	Ez

5.2.4 Behar bat posizioz mugitzea

Izan gogoan beharrak zure eskaeran "Gehitu beharrak nire eskaerari" izeneko leihoan gehitzerakoan erabili duzun ordenan azalduko direla.

Ordena jakin batean gehitzen badituzu, ondoren beharrak berrordenatu beharko dituzu.

Behar bat postu jakin batera mugitzeko, lehenik eta behin behar bat hautatu behar duzu (lerroaren gainean klik eginez – ikusiko duzu nola hautaturiko eskaintza kolore horira pasatzen den). Jarraian botoia sakatu beharko duzu.

15360 eskaera posizioz mugitu

Adieraziztako posizioan lanpostu hutsa sartu eta beraren ondoren daudenak posizio bat behara mugituko dira.

Posizio berria *

1

Lanpostu hutsa posizio hauen artean mugitu dezakezu: 1 eta 710

Utzi Onartu

Pos.	Id.	Zerrenda	Herria	Ikastetxea	Profilak	Murritzaketak (lanaldia/ordutegia)	Lanaldia (irakastorduen kopurua)	Ibilt.
1	15360	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ABLITAS	SAN BABIL HLHIP		2/5 L.M.	Orduak (15)	Bai
2	11584	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ALLO	LA CRUZ HLHIP			Lanaldi Osoa (25)	Ez
3	12029	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ALTSASU	ZELANDI HLHIP		1/8 L.M., 57 urtetik gora	Orduak (22)	Ez
4	13667	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ANDOSILLA	VIRGEN DE LA CERCA HLHIP			Lanaldi Osoa (25)	Ez

5.2.5 Behar bat eskaeratik kentzea

Eskaeratik behar bat kentzeko, lehenik eta behin hautatu egin behar da eta ondoren zakarrontziaren ikonoan klikatu. Ekintza gauzatzeko berrespena eskatuko zaizu.

Pos.	Id.	Zerrenda	Herria	Ikastetxea	Profilak	(lanaldia/ordutegia)	(irakasle kopurua)
1	15360	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ABLITAS	SAN BABIL HLHIP	2/5 L.M.		Orduak (1)
2	11584	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ALLO	LA CRUZ HLHIP			Lanaldi Os
3	12029	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ALTSASU	ZELANDI HLHIP	1/8 L.M., 57 urtetik gora		Orduak (22)
4	13667	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	ANDOSILLA	VIRGEN DE LA CERCA HLHIP			Lanaldi Os
5	10825	0597/ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA/G	AÑORBE	AÑORBE HLHIP			Lanaldi Os

Abisu mezu bat azalduko zaizu eta beharra zure eskaeratik desagertuko da. Beranduago berriz sartu nahi izanez gero, hala egin dezakezu "Hautatu beharrak" botoia sakatuz.

11584 lanpostu hutsa kendu da zure eskaeratik.

5.2.6 Gorde zirriborroa

Eskaeraren zirriborro bat gorde nahi baduzu, sakatu "*Gorde zirriborroa*" botoia. Eskaera baten zirriborro bat berriro editatzeko moduan izanen da parte hartzeko aldia irekita dagoen bitartean.

Izan gogoan eskaeraren zirriborroa ez dela kontuan hartuko deialdiaren ebazpenean.

Deialdia / Nire eskaerak / Eskaera

← Itzuli nire eskaeretara Deialdia 3/2021 - Zirriborroa

Gorde zirriborroa gorde Aurkeztu eskaera

5.2.7 Eskaera kopiatu

Aurkeztutako edo deuseztatutako eskaera bat kopiatzeko, sakatu eskaera hori Nire eskaerak pantailatik, eta goiko aldean "*Zirriborroa sortu*" botoia agertuko da. Ekintza gauzatzeko berrespena eskatuko zaizu.

Deialdia / Nire eskaerak / Eskaera

← Itzuli nire eskaeretara Deialdia 3/2021 - Eskaera 2020/0 (Aurkeztuta)

Eskaera kopiatu Eskaera baliogabetu

 **Eskaera kopiatu** ✕

i "Eskaera kopiatu" botoia sakatu eskaera berria egiteko egungo eskaeran aukeratutako lanpostu hutsak kopiatuz.

Baduzu eskaera baten zirriborroa eta, jarraitzen baduzu, horren gainean idatziko duzu.

Baduzu eskaera bat aurkeztua. Zure eskaera berria aurkeztu arte ez da erregistraturik geldituko.

Utzi

Eskaera kopiatu

Eskaera kopiatzean, aurkeztutako eskaeraren bat badago, abisu bat agertuko da:

"Baduzu eskaera bat aurkeztua. Eskaera berria aurkeztu arte ez da erregistraturik geldituko."

Eskaera kopiatzean, zirriborroren bat badago, abisu bat agertuko da:

"Baduzu eskaera baten zirriborroa eta, jarraitzen baduzu, horren gainean idatziko duzu."

Zirriborro berria gorde nahi baduzu, jarraitu [aurreko atalean](#) azaldutako urratsei.

5.2.8 Hautatu beharreko beharren kopurua

Hautatu beharreko beharren kopurua deitutako langileen [parte hartzeko modua](#)ren arabera izanen da.

- Deituriko zerrendan zer postutan dauden, horrenbeste behar hautatu beharko dute **nahitaez parte hartu** behar duten langileek. Langileek zerrendan duten postu hori bezainbeste lanpostu edo gehiago hautatu ezean, aplikazioak ez die utziko eskaera bidaltzen.
Zerrenda batean baino gehiagotan deitua izanez gero, nahikoa da zerrenda batean betetzea baldintza hori, beste zerrenda batetik nahitaez parte hartu behar duten izangaiei kasuan izan ezik.
- Oposizioa gaingitu duten espezialitatean behar adina lanpostu ez izateagatik **beste zerrenda batzuetatik nahitaez parte hartu** behar duten deituriko izangaiek beren espezialitateko zerrendan zein postutan dauden, horrenbeste lanpostu hautatu beharko dituzte, eta antzeko espezialitatean nahi beste lanpostu gehitu ahal izanen dituzte. Oposizioa gaingitu zuten espezialitateko zerrendan nahitaezko lanpostuen kopurua zerrendan duten postu-zenbakia baino txikiagoa bada, eskabideari gehitu beharko dizkiote zerrenda horretan betetzen duten postu hori bezainbeste lanpostu, antzeko espezialitateko, eta oposizioa gaingitu zuten espezialitateko nahitaezko lanpostu guztiak.
- Prestakuntzarako zerbitzu berezietan parte hartu** behar duten irakasleek eskaeran behar bat sartu beharko dute, gutxienez.
- Beren **borondatez parte hartu** nahi duten irakasleek eskaeran behar bat sartu beharko dute, gutxienez.

5.2.9 Eskaera aurkeztea

Eskaera bat aurkezteko nahitaezkoa da:

- Helbide elektroniko bat sartzea
- Telefono mugikor bat sartzea
- Parte-hartze motaren arabera beharrak hautatzea. Ikus [aurreko](#) atala.

4. Parte hartzeko epearen barnean egotea.

"*Aurkeztu eskaera*" botoi berdearen gainean klikatu eta testu bat azalduko zaizu, eskaeraren laburpenarekin. Informazio gisa, helbide elektronikoa, telefono mugikorra eta eskaeran sartutako behar guztien kopurua gogoan izanen dira.

Klikatu "*Aurkeztu eskaera*" botoian eskaera aurkezteko.

Aurkeztu eskaera

Zure eskaera aurkezteko zorian zaude. Prozesu honek luze jo dezake, amaitzen duzunean ikusten (deskargatzen) ahalko duzu zure eskaera Herriarraren karpetatik, Erregistro elektronikoko orokorretik edo "Nire eskaerak" erabiliz.

Helbide elektronikoa

Sakelako telefonoa

Aukeratutako lanpostu hutsak guztira

2

Utzi

Aurkeztu eskaera

Eskaera behar bezala erregistratu bada, ondoko orria azalduko da.

Eskaera ongi erregistratu da.

Joan hasierara 🏠

Nire eskaerak ☰

5.2.10 Jakinarazpenak

Ebazpenari buruzko informazioa eskura izanen da [Ebazpena](#) erlaitzean.

Hezkuntza Departamentuak, soilik informazio ondorioekin, mezu elektronikoa bat eta SMS bat igorriko ditu, hurrenez hurren, izangaiak eskaeran sartu dituen helbide elektronikora eta telefono mugikorreko zenbakira.

Aurreko paragrafoko mezu elektronikoa eta SMSa igorriko dira soilik ondoko kasuetan:

1. Parte-hartzea

Izangaia deialdira deitua izan bada.

2. Esleipenak

Izangaia deialdiaren ebazpenean behar baten esleipendun izan bada.

3. "Bazterketak zerbitzu berezietako zerrendetatik" egoerara pasatzea

Izangaiak "Baztertua zerbitzu berezietako zerrendetatik" egoerara pasatu behar badu.

Orrialdea:26 / 26